

Mikel Atxaga

Hitz-erdika

ELIXABETE GARMENDIA

MIKEL ATXAGA BIDEGILEA liburua eskutan hartu eta hark, Mikelek, gehienbat *Deian* argitaratu zituen artikuluen antologian, “Euskaltzaleak” izenburupean bilduta dauden euskal munduko pertsonaien erretratoei heldu diet. Ia 50 daude jasota liburuan, gehienak norbait hil osteko nekrologiak. Zirt-zarteko perfilak marrazten ditu Atxagak, askotan ustegabeak –eta egunkariaren presak beti– harrapatuta, pintzelkada sendo eta azkarrak erabiliz. Zehatzak, hala ere, zuzenak eta zorrotzak, hain berea zuen idaztankean. Gehienetan, pertsonaiarekiko sentipenak tartekatzen ditu. Duela lau urte hil zitzaion lagun minari, Joxe Mari Aranalderi, erretrato hotzagoa egin zion irailaren 25ean. Handik astebetara, “Hitzik gabe utzi nauk, Joxemai” idazten du, eta hor bai, hor askatzen du barrena bete-betean. Lehen artikulua betebeharrari erantzuten dio, saminak ez dio uzten haratago joaten. Bigarrenean aitortzen du ezin hori: “Hitzik gabe utzi nauk, Joxemai”. Hori, hitza, ahoz nahiz idatziz, ondare zuen gizonak.

Gaixotasunak erabat bigundu zuen Mikel. “Oso bera nago” aitortzen zuen behin eta berriz, barkazioa eskatuz bezala. Emozioari eusteko gai izango ez zelakoan deitu zidan aurtengo ARGIA Sarietan, Merezimenduzkoa jasotzerakoan, nik irakurri nezan bere esker oneko idatzia. Mahaikide izan ginen Txixardin Beltzan, eta jan, ez zuen garai bateko tamainan jan, baina solasik ez zitzaigun falta izan. Kontu asko jakiten zuen Mikelek, baina, batez ere, gozatu egiten zuen kontu-kontari eta atsegin horrek kontalari aparta bihurtzen zuen.

Otsailean bizpahiru saio luze egin genituen elkarrekin hizketan, bere bizitzari errepassoa emanez, *Mikel*



DANI BLANCO

Atxaga bidegilea liburuan jasoko zen perfila idazteko. Hizketarekin, baretu egiten zitzaion mina eta gogoia piztu; barretik negar zotinerara, oroimina, errukia, zalantza, haserrea, etsipena... aldarte klase guztiak joan ziren azaltzen, euritik ostadarrerainoko bidea eginez. Bere umore burlaizetsuak ere bazuen tokia jardunean. Adibidez kontatu zuenean nola sendotzako sakramentua jasotzerakoan, Lauzirika gotzain frankistak eman zion zaplaztekoarekin, “eskuinera ala ezkerrera joan ez nekiela geratu nintzen. Eta bizitza osoa daramat, geroztik, ezkerrera ala eskuinera jo ez dakidala”. Hala ere, aitortzen zuen, “erraz elkartzan naiz galtzaileekin. Beti. Baita frontoian ere”.

Elizak don Migel galdu zuen eta euskarazko kazetaritzak Mikel Atxaga irabazi

Sekularizazioa ukatu egin zioten eta ondorioz bi aldiz ospatu behar izan zuten ezkontza Marianjelesek eta berak, lehenengoan *boda sakrilegoa* zioen, ironia ezkutatu gabe; bigarrenean Erromako baimenarekin. Elizak don Migel galdu zuen eta euskarazko kazetaritzak Mikel Atxaga, *Herrizale*, irabazi. Ausardia eta konpromisoa, biak erakutsi

zituen apaiz langile eta herrigintzan txertatua izan zenean eta kazetari “ez titulatu baina profesionala” izatearen bideari heldu zionean. Legea saihesteko errepatorik ez zeukan, kontzientziak hala agintzen zionean.

Bidegileak saila zuzentzea izan zuen eginkizun nagusi azken hamarkada luzean. Berrehunen bat biografia argitaratu dira hor, aspaldiko euskaltzaleenak nahiz gaur egunekoena, oinarritzko

antologia bat, euskalgintzaren *who is who*-a. Berak hautatutako azkenak argitaratzeko daude oraindik, bukaera arte segitu baitzuen zeregin horretan.

Mikelen lan egiteko modua ezarian ezariko zen. Okendo-22ko bulego-zirkulu hartan, *olivetti* zaharrari zanpa eta zanpa, astia hartzen zuen goizerdiko nahiz bazkalondoko kaferrako, edo hain sarri azaltzen ziren bisitei kaso egiteko. Atea zabalik beti.

Belaunaldi ezberdinen arteko erreleboa ere gertatu zen 70eko hamarkadaren erdialde sutu hartan. Ez ginen beti bat etortzen lehengoak eta berriok. Zeruko ARGIA *refugium peccatorum* bihurtzen ari zen, eta Mikelen tzat ez zen erosoia beti hango giroa. Martin Ugaldere gonbiteak eraman zuen beste plaza batera, *Deiara*. Hala ere, editorialak idazten segitu zuen urte batzutan, lehenago, Zeruko ARGIAko erredakzioan sartu aurretik, egin ohi zuen bezala. Editorialetan bat egiten zuten kazetariak eta apaizgintzatik zetorkion beste eskola hark.

Plaza gizona izan arren, ez zen sekula mediatikoa izatera iritsi. Zenbat kalabaza ez ote zidan eman teletistara eraman nahi izan nuen guztietan. Izan ere, bera azaldu baino, besteei eragitea zuen nahiago.

Euskarazko kazetaritzaren historiari aitortuko dio –eta ez hitz-erdika– ezinbesteko katebegi izana. ■